

ANEXO I
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO
DIDAKTIKOA EGITEKO TXANTILOIA

ANEXO I
PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN
DIDÁCTICA ANUAL DE ÁREA O MATERIA

Urteko/ikasmilako programazio didaktikoa

Programación didáctica anual/de curso

ikastetxea: <i>centro:</i>	ARALAR BHI	kodea: código:	012951
etapa: <i>etapa:</i>	DBH	zikloa/maila: ciclo/nivel:	3. maila 3B eta 3C
arloa/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	TEKNOLOGIA		
diziplina barruko oinarrizko kompetentzia	DBK 4: Teknologiarako kompetentzia		
diziplina barruko oinarrizko kompetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	DBK 1: Hizkuntza eta literatura komunikaziorako kompetentzia DBK 2: Matematikarako kompetentzia DBK 3: Zientziarako kompetentzia DBK 5: Kompetentzia sozial eta zibikoa DBK 6: Arterako kompetentzia DBK 7: Kompetentzia motorra		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	Nerea Machado	ikasturtea: curso:	2022/2023

Oinarrizko zehar kompetentziak / *Competencias transversales:*

- Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia
- Elkarbizitzarako kompetentzia
- Ekimen eta espiritu ekintzailerako kompetentzia
- Norbera izaten ikasteko kompetentzia

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
<ul style="list-style-type: none"> • Marrazketa tresnak erabiliz bistak marrazten jakitea, tailerlean eraikitako proiektuak adierazteko. (DBK4) 	<ul style="list-style-type: none"> • Objektu baten oinarrizko bistak marraztea, lerro mota desberdinak egoki erabiliz.

<ul style="list-style-type: none"> • Marrazketa tresnak erabiliz etxebizitzaren gelen planoak marrazten jakitea, tailerrean eraikiko diren proiektua adierazteko.(DBK4) • Objektu baten perspektiba isometrikoa eta caballera irudikatu, hiru dimentsiotan irudikatzearen garrantziaz jabetzeko. (DBK4). • Eskala eta akotazio arauak aplikatzen jakitea, tailerrean etxeko maketa eraikitzeo.(DBK4) • Teknologia arloan marrazketaren garrantzia baloratzea, irudi bidez ideiak adierazteko eta komunikatzeko (DBK4) 	<ul style="list-style-type: none"> • Gelen planoak marrazteko oinarrizko sinbologia jakitea eta egoki aplikatzea • Ideiak krokis edo zirriborro bidez adieraztea • Perspektiba isometrikoa eta caballera irudikatzeo oinarrizko arauak aplikatzea. • Eskala zer den jakitea eta hau kalkulatzeko ekuazioak zuzen gauzatzea. • Akotazioa arauak jakitea eta egoki aplikatzea. • Marrazketaren garrantzia baloratzea
<ul style="list-style-type: none"> • CAD tresnak erabiliz planoak, bistak eta bestelako irudi teknikoak marraztea txosten teknikoa osatzeko (OZK1, DBK4) 	<ul style="list-style-type: none"> • CAD marrazketa tresnak ezagutzea •Marrazketa arauak errespetatuz ordenagailuz marraztea
<ul style="list-style-type: none"> • Mekanismoak zer diren, dituzten elementuak, funtzioa eta funtzionamendua ezagutzea eta transmisio kalkulua errazak egiten jakitea. (DBK1, DBK2, DBK4). • Hiztegi teknikoa menperatzea, ahoz eman beharreko azalpena zehatza izateko. (DBK1, DBK4). 	<ul style="list-style-type: none"> • Mekanismo desberdinak eta dituzten elementuak ezagutzea. • Trasmisio desberdinak ezagutzea. • Mugimendu eta abiaduta transmisioen kalkuluak zuzen egitea. • Ahoz azalpen egokia ematea hiztegi teknikoa erabiliz.
<ul style="list-style-type: none"> •Etxebizitzetako instalazioak ezagutzea ondoren tailerrean muntatzeko (DBK4, DBK7) • Energia kontsumoen fakturak aztertzea, energia aurreztearen eta arkitektura bioklimatikoaren garrantziaz jabetzeko (DBK1, DBK2, DBK4, DBK5) 	<ul style="list-style-type: none"> • Etxebizitzetako instalazio desberdinen ezaugarriak jakitea • Energia kontsumo gehiegizkoaren ondorioak ezagutzea • Arkitektura bioklimatikoaren oinarriak ezagutzea • Tailerrean instalazio bat egitea.
<ul style="list-style-type: none"> • Korronte elektrikoaren efektuak, oinarrizko osagai elektrikoak eta haien funtzioak ezagutzea, tailerreko osagai elektrikoak erabiliz zirkuitu elektriko sinpleak montatzeko (DBK1, DBK2, DBK3, DBK4) • Osagai elektrikoaren sinboloak ezagutzea zirkuitu elektrikoak marrazteko eta interpretatzeko (DBK1, DBK4) • Simulazio programa bat erabiltzen jakitea hainbat zirkuitu sinple simulatzeko eta funtzionamendua egiaztatzeo (DBK1, DBK4). 	<ul style="list-style-type: none"> • Oinarrizko osagai elektrikoak ezagututa zirkuitu elektrikoak montatzea • Zirkuitu sinpleak sinbologia egokiaren bidez irudikatzea. • Eskema elektrikoak interpretatzea eta berariazko lexikoaz azaltzea. • Simulazio programa bat erabiliz zirkuitu elektrikoak egoki simulatzea

<ul style="list-style-type: none"> • Programazioaren oinarriak jakitea, emandako proiektu batzuk programatzeko (DBK1, DBK2, DBK4) 	<ul style="list-style-type: none"> • Programazio tresnak eta baliabideak ezagutzea • Egoera bakoitzean programa egoki bat diseinatu eta gauzatzea
<ul style="list-style-type: none"> • Planifikatutako moduan proiektua eraikitzea tailerreko material eta erremintak erabiliaz (DBK4, DBK5, DBK7) 	<ul style="list-style-type: none"> • Aurreikusitako pausoak emanez eraikitzea • Aurreikusitako materiala erabiltzea • Tailerreko segurtasun arauak jarraitzea • Erremintak konfiantzaz eta trebetasunez erabiltzea
<ul style="list-style-type: none"> • Eraikitako proiektua baloratzea emandako pausoak aztertuz proiektuari hobekuntzak proposatzeko (OZK3, OZK4, DBK1, DBK4, DBK5) 	<ul style="list-style-type: none"> • Proiektuaren ebaluazioan parte hartzea eta proposamenak egitea
<ul style="list-style-type: none"> • Eraikitako proiektuaren aurkezpena egitea beste zenbait alderdien artean funtzionamendua eta eraikitze prozesua azalduz eta ebaluazioa eginez (OZK1, OZK3, OZK4, OZK5, DBK1, DBK5) 	<ul style="list-style-type: none"> • Emandako gidoian aipatutako puntu guztiak betetzea • Proiektuaren aurkezpenean parte-hartze aktiboa izatea
<ul style="list-style-type: none"> • Teknologiak ingurunean duen aplikazioaz jakin-mina adieraztea (OZK5) 	<ul style="list-style-type: none"> • Inguruko tresnen funtzionamendua behatzea eta ikertzea
<ul style="list-style-type: none"> • Taldean aktiboki parte hartzea ardurak eta plangintza betez, proiektua aurrera ateratzeko (OZK1, OZK2, OZK3, OZK4, OZK5, DBK1, DBK2, DBK4, DBK6, DBK7) 	<ul style="list-style-type: none"> • Taldean lanean ari direnean errespetuzko jarrera izatea taldekideen artean • Laguntza behar duenari eskaintzea eta behar den guztietan eskatzea modu egokian • Karguak eta ardurak betetzea • Ea bere konpromiso pertsonala betetzea
<ul style="list-style-type: none"> • Proiektuan zehar egindakoa dokumentatzea, baliabide digitalak eta hiztegi tekniko egokia erabiliz txosten bat egiteko (OZK1, OZK2, OZK3, OZK4, OZK5, DBK1, DBK4). 	<ul style="list-style-type: none"> • Txosten osatu bat egitea taldekide guztien artean, hiztegi teknikoa eta behar diren irudiak erabiliz

ARAZO EGOERA [Arazo egoera bakoitzaren azken ataza, arazoa eta testuinguruaren daturik aipagarrienak agertuko dira].

SITUACIÓN PROBLEMA [Incluirá los datos relevantes del contexto, el problema y la tarea final de cada una de las situaciones.].

Arazo-egoera: **ETXEA PROIEKTUA**

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
AURKEZPENA (saio 1)	4UD. PROIEKTUA (10 saio)	

<ul style="list-style-type: none"> • Programazioa, metodologia, ebaluazioa, erreperazioa • Gelara ekarri beharreko materiala • Liburu digitalen lizentziak. Nola sartu saioan, liburu digitalak aurkeztu. • Classroom 	<p>Etxearen maketa eraiki eta instalazio elektrikoa ezarri</p> <ul style="list-style-type: none"> • Arazoaren definizioa • Aurreproiektu • Eraikuntza • Balorazioa 	<p>9UD: KONTROLA ETA ROBOTIKA: (10 saio)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kontrol automatikoa • Ordenagailu bidezko kontrola • Sentsoreak • Robotak
<p>1UD. MARRAZKETA TEKNIKOAK (20 saio)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aurretiko, goitiko eta profil bistak • Perspektiba isometrikoa eta cavalleri • Eskala • Akotazioa 	<p>6UD: ETXEKO INSTALAZIOAK (6 saio)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Elektrizitatea • Etxeko ura • Hustubidea • Gasa • Berokuntza • Aire girotua • Domotika • Arkitektura bioklimatikoa 	<p>10 UD: PARKING ATE AUTOMATIKOA (18 saio)</p> <p>Kurtsoan zehar gauzatu dugun proiektuari parking atea gehituko diogu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Arazoaren definizioa - Aurreproiektua - Eraikuntza - Balorazioa
<p>2UD. FLOORPLANNER (4saio)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eskatutako baldintzak beteko dituen etxea eskalara egitea • Etxearen banaketa • Dekorazioa 	<p>7 UD: PLASTIKOAK (4 saio)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zer dira plastikoak • Plastikoen propietateak • Plastikoen erazketa • Plasztikozko hondakinen kudeaketa, birziklatzea • Plastikoko motak • Plastikoen fabrikazioa 	
<p>3 UD. LIBRECAD (3 saio)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Paretak akotatu 		
	<p>8UD. ENERGIA (5 saio)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zer da energia • Energia iturriak • Energia elektrikoaren sorrera • Energiaren garraio eta banaketa • Zentral motak • Faktura elektrikoa 	

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

- Teknologia ikasgaiaren pentsamendua eta ekintza uztartzen dira, eta oso aproposa da ikaslearen prestakuntza integrala emateko. Erabiliko den metodologiaren ardatzak bi dira alde batetik proiektu metodologia eta bestetik Informazio eta Komunikazio Teknologia (IKT). Biak, metodologia

ardatzak izateaz gain, alorreko berariazko edukia ere badira. Beste alde batetik, oso garrantzitsua ikusten dugu ikasleak ere erabakietan parte hartzea, arauak ezartzean, barneratzeko eta gero bete eta errespetatu ahal izateko.

- Antolamendua: 1. DBHn astean 3 ordu eskainiko zaizkio Teknologia ikasgaiari eta ohiko gelan zein teknologia gelan emango dira saio guztiak.
- Taldekatze mota: edukiak lantzeko garaian batzuetan **Ikaskuntza kooperatiboaren metodologia** jarraituko da eta beste batzuetan bakar lanean edo talde txikitik arituko dira. Analisi edo proiektuen metodoarekin ari badira 2, 3 edo 4ko taldetan arituko dira jardueraren arabera.
- Ekintza motak: unitate didaktikoetan landuko diren jarduerak honako hauek dira; sarrera motibazio jarduerak, aurretiazko ezagupenak ateratzeko jarduerak, sakontze jarduerak, errefortzurako jarduerak eta hedapen jarduerak.
- Erremintak eta garbitasuna: ikasleak arduratuko dira saio bakoitzaren ondoren ikasgela garbi eta txukun uzteaz. Saio bakoitzaren amaieran talde bakoitzak erabilitako material, tresna eta erremintak gordeko ditu, garbiketa arduradunek makinaren ingurua garbitu eta gela txukun dagoela ziurtatuko dute eta erreminta arduradunek erreminta guztiak panelean txukun daudela ziurtatuko dute.
- Unitate didaktiko gehienetan, edukiak tecno12-18 liburu digitala erabiliz landuko dira. Liburuko testak, iharduerak eta galderak banaka edo taldetan landuko dituzte ikasleek.
- Gelan ikusi eta landutako guztia Google Classroom-en eskura edukiko dute ikasleek, eta gelako hainbat iharduera bertan landu eta entregatuko dira.
- Ebaluazio bakoitzean kontrol bat izango da normalki. Froga honek edukien eskuratze eta barneratze mailaz gain, informazioaren trataeran erakusten duen konpetentzia eta norbere autonomia eta ekimenerako konpetentzia neurtzea du helburu.

Baliabideak:

Teknologiako saioak ohiko gelan nahiz teknologia gelan emango dira; egin beharreko jardueraren arabera ikasgelan edo tailerrean arituko dira ikasleak. Hauek dira erabiliko diren baliabideak:

- Teknologia gela hornitua:
 - Ikasgela: ikasleentzat mahaia, eta azalpenak laguntzeko ordenagailua, proiektorea eta arbela txuria.
 - Tailerra: taldean lan egiteko mahai handiak, proiektua eraikitze beharrezko diren erreminta, tresna eta material gehienak, eta zirkuitu elektrikoak muntatzeko elementuak besteak beste.
- Ikasle bakoitzak bere ordenagailu eramangarria
- Ikastetxeko Wi-Fi sarea
- Irakasleak prestatutako jarduerak, lanak eta materialak.
- Baliabide digitalak:
 - www.tecno12-18.com webguneko liburu digitala: edukiak lantzeko
 - Irakasleak prestatutako jarduera asko euskarri digitalean landuko dira (Drive, Classroom)
 - G Suite for education: classroom, calendar, Drive, posta elektronikoa, dokumentuak, kalkulu orriak, aurkezpenak...: informazioa sortu, partekatu, bidali eta trukatzeko
 - Kahoot!, Sites, Educaplay...: ariketa, test eta galdetegiak egiteko
 - Interneteko bideoak, aurkezpenak, irudiak eta webguneak: informazioa biltzeko edo jasotzeko
 - Aralar ikastetxeko bloga bera aurreko urteetako proiektuak ikusgai izateko.
 - Argazki makina eta bideokamera digitala: egindakoa dokumentatzeko.

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-irizpide bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada criterio de evaluación].</p>
<p>Hauak dira ikasleak kalifikatzeko erabiliko diren tresnak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Irakaslearen koadernoak. Oinarrizko zehar-kompetentzien, lanarekiko, araeakiko, besteekiko, materialekiko... erakutsi duen jarreraren eta etxeko lanen jarraipenaren erregistroak. • Ikaslearen koadernoak. Jardueren emaitzak, ondorioak, ariketak... biltzen dituen "koadernoak" paperean edo/eta euskarri digitalean. • Azterketak: Unitatean zehar burututako froga idatziak eta testak paperean edo/eta digitalean. • Lanak: Proiektuen aurreproiektuak eta txostenak, eta ikerlanak. Marrazketako ariketak. • Ahozkoak: Aurkezpenen, eztabaiden eta mahai inguruen errubrikak. • Proiektuak: Proiektuak eta tailerrean egindako beste lanak (errubrikak). 	<p>Teknologia irakasgaiko ebaluaketa konplexua izan daiteke egiten diren jardueren aniztasunagatik eta ebaluazio guztietan ez direlako ebaluatzeko tresna/kalifikazio irizpide berdinak erabili ahal izango.</p> <p>Orokorrean irizpide hauek jarraitzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Irakaslearen koadernoak %20. • Ikaslearen koadernoak, azterketak eta lanak %40 • Ahozko partehartze eta aurkezpenak %10 • Proiektua eta txostena %30 <p>Dena dela ehunekoak lantzen diren lanen arabera zehaztuko dira (ebaluazioren batean atalen bat kalifikatu gabe gera daiteke). Edonola ere, ebaluazioko batezbesteko ponderatua egin ahal izateko, gutxienez 3,5 puntu lortu beharko dira unitate didaktiko bakoitzeko atal bakoitzean eta unitateko batezbestekoan. Ebaluazioa eta ikasturtea gainditzeko 5 puntu lortu beharko dira batezbesteko ponderatuan.</p> <p>Ebaluazioan ere Aniztasunari arreta eskaini behar zaio, horretarako kasu bakoitza aztertuko da baina orokorrean laguntza behar duten ikasleei azterketa egokitu egingo zaie, lan monografikoak edo memoriak egin behar badira, landu beharreko puntuak aukeratuko dira, kasu hauetan eguneroko lanari, proiektua eraikitzeo lanari eta ikaslearen jarrerari emango zaio garrantzi handiagoa. Ahalmen handiagoko ikasleei agindutako lanak ebaluatuko zaizkio, beti ere modu motibagarrian.</p> <p>Kompetentzietan oinarritutako hezkuntza izanik, ikasleen kalifikazioak zehazterakoan, edukien edo baliabideen eskurapenaren ebaluazioari baino garrantzi eta pisu erlatibo handiagoa emango zaio arazoak konpontzeko haiek aplikatzen eta taldean lan egiten jakiteari. Horregatik, eguneroko saio eta jardueretan oinarrizko kompetentziak sustatuko, indartuko eta behatuko dira.</p>
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].</p>	

CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].

Aniztasunaren trataera:

Ikasketa erritmoa besteena baino baxuagoa duten ikasleentzat, gainontzeko ikasleak egiten ari diren jarduerak moldatu edo murriztuko dira ikasleari egokitzeko, helburuak, edukiak eta ebaluazio irizpideak ahal den neurrian berdin mantenduz. Taldekatzeko garaian arreta jarriko da laguntzeko gaitasuna duen ikasle baten talde berean jartzeko. Ezarritako helburuak lortzen eta motibazioa mantentzen lagunduko zaie; ongi burututako ekintza eta jarduerak gorai patuko ditugu bere motibazioa indartu dadin.

Besteek baino ikaste erritmo edo gaitasun handiagoa duten ikasleei, zabaltze-jarduerak emango zaizkie beren beharrak asetzeko (zailagoak, konplexuagoak, desberdinak, gehiago...). Ikaslearen gaitasunaren arabera, irakasleak prestatutako edo liburu digitaleko hainbat jarduera aukeratu dira, gelan landuko ez direnak, eta haiek eskainiko zaizkie. Bakarkako jarraipen edota tutoretza bat izatea ezinbestekoa izango da.

Jarrera disruptiboa duen ikasleen kasuan lehen aldi, jarrera desegokia izan duen ikaslearekin, bakarka hitz egingo da eta bere jokabidearen arazoiei eta ondorioei buruzko hausnarketa egin eraziko zaio, adostutako arauak gogoratuko zaizkio eta argi utziko zaio gelan ez dela jokabide desegokirik onartuko. Egoera errepikatzen bada, neurriak hartuko dira: laguntza eskainiko zaio, gurasoei eta tutoreari egoeraren berri emango zaie, kontratu pedagogiko bat egingo da, ikastetxeko barne araudia aplikatuko da... Irakaslea saioan zehar arau haustek aurreikusten eta saihesten saiaturiko da ahal den neurrian.

Irakaslea ikasleekin adostutako atsedean garai batean teknogelan egongo da ikasleei zalantzak argitu, azalpenak eman edo beste zerbaitetan laguntzeko.

Errekuperazioa:

Ebaluazio hezigarriaren barruan, ebaluazioa gainditu ez duen ikasle bakoitzak bere hutsuneak zein izan diren edo/eta hobetzeko zer egin behar duen jakingo du, eta lortu ez duen helburu edo kompetentzia eskuratu beharko du errekeratzeko. Orokorrean, irizpide hauek jarraituko dira:

- Jarrera (irakaslearen koaderno): ebaluazioan zehar errepikatu diren lan ohitura txarrak zuzendu eta onak indartu behar dira; talde-lana, segurtasuna, errespetua eta motibazioa bultzatu eta indartuko dira. Jarrera berreskuratzeko sistema jarraia da, hau da, hurrengo ebaluazioan hobetuz gero, aurrekoa ere gainditutzat kontsideratuko da.
- Azterketak: kontzeptuzko edukiei dagokienean, ikaslearen hutsuneak beteko dituen saio eta ariketa laburrak antolatuko dira. Ondoren errekerazio azterketa egingo da.
- Dokumentazioa (ikaslearen koaderno eta lanak): falta diren lanak bukatu eta entregatu, eta nota baxua dutenak osatzeko edo errepikatze laguntza eskainiko zaie eta berriro entregatzeko aukera izango dute kalifikazio minimora iristeko.
- Proiektua: amaitu gabeko proiektuak bukatzeko eta ongi funtzionatzen ez duten proiektuak zuzentzeko aukera emango zaie ikasleei. Baliabideak eta laguntza eskainiko zaizkie helburua lortu ahal izateko.
- Ahozko aurkezpenak: egindako aurkezpenean ongi egindako gauzak indartu eta gaizki egindakoak zuzentzeko, hutsuneak beteko dituzten saio laburrak antolatuko dira. Ondoren, irakaslearen aurrean aurkezpena errepikatuko da, eta ongi eginez gero errekeratuko da.

Ebaluazio bat suspenditu duten ikasleei, hurrengo ebaluazioan arreta berezia eskainiko zaie berriro gainditu gabe geratzea ekiditeko ahal den neurrian.

Ohiko deialdia: ikasturtean zeharreko berreskurapenak gainditu ez dituzten ikasleek, aprobatu gabeko unitate bakoitzari dagozkion nahikotasun frogak izango dituzte ekaineko azken saioan, eta horiek gainditu ezker, ohiko deialdian gaindituko dute ikasturtea.

Ez-ohiko deialdia: ohiko deialdia suspenditzen dutenek, ikasturte osoari dagokion ez-ohiko froga bat egiteko aukera izango dute. Froga hau eduki minimoetan oinarrituko da.

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren ebaluazioa:

Ebaluazioak, ikasleriaren zailtasunak detektatzea ahalbidetuko du eta ondorioz, programatutako jarduerak eta estrategia didaktikoak egokitu eta moldatu ahal izango dira.

Hasieran, hasierako fasean burututako test laburrak, ideia-jasak, galderak, behaketa... abiapuntua definitzeko eta beharrezko balitz planifikazioa egokitzeko balioko digute.

Prozesuan zehar, garapen eta aplikazio faseetan bildutako jardueren emaitzak, ikaslearen lan-koadernoan, behaketak ikasleen hutsuneak eta zailtasunak aurkitzeko eta neurriak hartzeko erabiliko dira.

Amaieran, orokortze faseko azterketa, txostena, proiektuaren emaitza, aurkezpena, balorazio inkestaren bitartez emaitza egiaztatu eta aurrerapenak baloratuko dira.

Prozesu honen emaitzei esker, ikasturteko estrategia didaktikoak egokitu eta moldatuko dira. Hortaz gain, bai ebaluazioaren emaitzak eta baita egindako aldaketak ere urteko memorian bilduko dira hurrengo urteko programazioak egiteko garaian kontuan hartzeko.

OHARRAK / OBSERVACIONES

Teknologia ikasgaietan, jarduera gehienak taldean lantzen direnez, teknologiarako kompetentziaz gain, oinarrizko zehar-kompetentzia guztiak sustatuko, indartuko eta behatuko dira eguneroko saio eta jardueretan. Kompetentzia hauek ikasleak egunero eta uneoro bere jardunean duen ekimenean, lankidetzan, banakako lanerako gaitasunean, elkarrekintzan, harremanetan, bere buruarekiko/besteekiko errespetuan... agertzen ditu, eta beraz, egunero ebaluatuko dira eta irakaslearen koadernoan erregistratuko dira.

Kompetentzia hauekiko ikasleek erakusten duten maila eta jarrerari buruzko behaketa egingo da saio bakoitzean. Behaketaren ondorioz, ikasleren batek oinarrizko zehar-kompetentzietan hutsune nabarmenak dituela antzematen bada, momentuan errefortzua eta laguntza eskainiko zaizkio kompetentzien lorpenerako bidea adieraziz edo erakutsiz.

Teknologia ikasgaietan, oinarrizko kompetentzia guztiak eskuratzeko jarduera anitzak pentsatu dira eta haiek lantzerakoan oinarrizko kompetentziak garatuko dira:

Oinarrizko zehar kompetentziak:

OZK1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia: talde lanean elkarrekin komunikatzeko garaian, diseinuak egiterako garaian, marrazketa lantzerakoan, txosten eta aurkezpenak prestatzerakoan, aurkezterakoan, partekatzerakoan, elektrizitate sinboloak erabiltzerakoan...

OZK2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia: banakako jarduerak lantzerakoan, etxeko lanak egiterakoan, azterketak prestatzerakoan, informazioa bilatzerakoan, arazo-egoerei soluzioak emateko garaian, proiektuak eta lanak egiterakoan sortutako arazo edo ezustekoei soluzioak emateko garaian...

OZK3. Elkarbizitarako kompetentzia: ikaskideek elkarrekiko agertzen duten jarreran eta errespetuan (bai talde lanean ari direnean, baina baita banaka ari direnean ere), kritikak eta akatsak onartzerakoan agertzen duen jarreran...

OZK4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia: taldeko jardueretan ekarpenak egiterakoan, arazo-egoerei soluzioak emateko garaian (planifikatuak, bideragarriak...), bidean sortutako arazo edo zailtasunei soluzioak emateko garaian, lortutako emaitzak aztertzekeo garaian, azken fasean ateratako ondorioetan...

OZK5. Izaten ikasteko kompetentzia: talde lanean, bakarlanean eta orokorrean gelako ekintza eta jarduera guztietan eta batez ere zailtasunen aurrean (ikaslearen autokontzeptua, autoestimua, autonomia edo ahalduntzea).

DBK1. Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia: talde lanean elkarrekin komunikatzeko garaian, gelaren aurrean parte hartzerakoan, testuak irakurri eta ulertzeko garaian, entregatzen dituzten lan eta txostenetan, egiten dituzten aurkezpenetan, azterketetan... (ulerkortasuna, zehaztasuna, hiztegi teknikoa...)

DBK2. Matematikarako kompetentzia: tailerrean neurketak egiterakoan eta haiekin eragiketak egiterakoan, egiten dituzten lanetan, txostenetan, azterketetan... (kalkuluak, diagramak...)

DBK3. Zientziarako kompetentzia: elektrizitatearen fenomenoak ulertzerakoan, klima aldaketa eta garapen jasangarria lantzerakoan...

DBK4. Teknologiarako kompetentzia: proposaturiko jarduera guztietan. Edukiak ulertzerakoan eta barneratzerakoan, objektu teknologikoak aztertzerakoan, proposatutako ariketak ebazteko garaian, ondorioak ateratzerakoan, tailerrean eraikitzekeo garaian...

DBK5. Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia: soluzio edo irtenbide teknologikoen gizar-teari ekarritako onurak aztertzerakoan...

DBK6. Arterako kompetentzia: diseinu eta akabera faseetan (irudimena, sormena, estetika...)

DBK7. Kompetentzia motorra: tailerreko makina eta tresnak erabiltzerakoan (jardun motorra, psikomotritate fina, eskuen erabilera trebea, ergonomia).

Kompetentzian oinarritutako hezkuntzari lotuta, ikasturte amaieran, ikasle bakoitzak oinarrizko kompetentzia bakoitza zein mailatan (hasierakoa, erdikoa edo aurreratua) lortu duen ebaluatu behar da. Ebaluazio hau ez da ikasgaiko egingo, ikasturteko baizik, beraz ikasturte amaieran irakasle taldearen artean ebaluatuko da zein mailatan eskuratu duen ikasle bakoitzak kompetentzia bakoitza.